

ZAINTZA ZAINDUZ

ZAINTZAREN BARETASUN TXOKOA



Azkenaldian jendartean errespetuz mintzatzen den gaia da, inork ez bait du jaso nahi etengabeko zaintza bat, eta era berean, pertsona bat zaintzean integritatea jokoan jartzen delako. Ofizio honetan, erabiltzaile eta teknikariaren arteko harremana zaintzea ezin bestekoa da, bi aldeek atseginez bizi ahal izateko.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak desberdinak dira haien artean, menpekotasunari dagokion alderaketa eta berezkoa. Haiekin jardutean, sentitzeko era, egiteko era eta erantzuteko eraren arabera, onean eta txarrean teknikariaren arima ukitzen du. **Zaintza Zainduz** prozesuaren xedea zaintzailea laguntzea da, egiteko erak ikertuz, erantzuteko erak asmatuz eta sentitzeko erak biziz. Partaideek haien zailtasun eta beldurrak oholtzara igo eta entseatzean datza, era xamur baten, inolako epaiketa gabe eta konfidentzialtasun osoz. Partaideak, aktoreak ez izateak ez du axola, eszenak beti aurrera egiten du, ez da sekula errealitatea izango baina aurkeztuko diren zailtasunak eta beldurrak parekoak dira. “Orain eta hemen” izanik, aukerak anitzak dira: rolak ordezkatu, hitzak elkarren ahotan ipini, espazioak markatu, distantzia neurriak aldatu, emozioak partekatu ... Partaideek ikerketa hau haien gorputzetik, burutik eta bihotzetik bizitzean, haien lan egiteko moduaren aldaketak, edota garatu beharreko rolak identifikatzen dituzte eta bizipoza irabazi.

Mamia:

Lehenik eta behin, partaideek dauzkaten “erresistentziak” mahaigaineratu behar dira. Hau da, gorputzaren memorian barneratuta dauden lotsak eta epaitua izateko beldurrak eragindako barreak, deserosotasunak eta gaizki ulertuak gainditu. Zaintzak eta antzerkiak hizkuntza berdin bat adosteko, prozesuak zubi lana egiten du, antzerki irizpideak, erremintak eta antzerki jolasen ezaugarriak, zaintzarekin alderatuz. Giro goxo bat lortzen denean eta konfidentzialtasuna nagusituta, partaide bakoitzak bere eskarmentua, beldurrak eta zailtasunak partekatuz suspertzen diren gaiak txekiatzen dira. Bideratzailearen laguntzaz, jasotako beldur eta zailtasunetan

oinarrituta, eszena samurrak prestatu eta guztien aurrean antzezten dira; elkar epaitu gabe, talde-giroa entzunez eta “orain eta hemen” errespetatuz.

Eszenan parte hartu duten aktoreek haien pertsonaietatik bizitakoa, eta ikusleek sentitutakoa zintzotasunez elkarri kontatzean, ikerketaren funtsa azaleratzen da eta partaide bakoitzaren zainketak garrantzia hartzen du, jarduna ahaldundu eta profesioak duintasuna irabazten du.

Baldintzak eta Eskakizunak:

- Zaintza Zainduz prozesua, mendekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonak zaintzen dituzten entitateei laguntzeko sortu da.
 - o “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta” modulua duten ikastetxeak.
 - o Profesionalki, alor publiko naiz pribatuan dabilen enpresak.
 - o Zaintzaren kezkak eraginda sortutako elkarteak.
- **Zaintza Zainduz** prozesuan erabiltzen den teknika berria dela eta, zerbitzua bultzatu eta aberasteko asmoz, eskertzekoa da, deia egin duen entitateko arduradun batek Zaintza Zainduz prozesua zuzenean bizitzea
- Prework bidez, aurretiko lana egiten da eta partaideek gorputz, buru eta arima prestatzen dute.
- Formazioaren lehen zatia, espazio txukun eta itxi baten izan behar da, giro konfidentziala lortzeko, askatasunez adierazteko, antzezteko ... ondoren, antzezteko behar izango dugun materiala dagoen lekura gerturatuko gara, edo materiala bertaratu.

Onurak:

- Taldea sendotu. Parte hartzaileak entitate berdinen kide izan ez gero, formazioak haien arteko harremana sendotzen du. Elkar bizi izandakoren ondoren, hitz egiteko era aldatzen da eta aurrera begira, trebe sentitu ezker, haien aldetik ikertu ditzakete haien zailtasunak.
- Rolak garatu. Eszenak egiterakoan, partaideek haien rola kanpotik begiratzean, hobariak eta oztupoak nabarmentzen dira eta beste rol batzuk landuta, abantailak irabazi ditzaketela konturatu. Haien burua, gorputza eta anima babesteko egin behar dituzten aldaketak barneratzean, jardunean dituzten pisuak arintzen dituzte.
- Enpatiaren esan nahiak, larru-azaletik bizi eta errailetan tokia hartzen du.
- Gaizki egiteko aukera dagoela argitzen da.
- Maitasuna eta Zaintzaren arteko harremana, ezagutu eta neurtu.



Antolaketa:

- Luzapena: 4 ordu eta $\frac{1}{2}$ < 6 ordu. .
- Saio bakoitzaren luzapena: Ordu 1 eta $\frac{1}{2}$ edo 2 ordu.
- Antolatzaile eta bideratzaileen batzar baten bueltan taldearen idiosinkrasiak eta martxan jartzeko ereduak azaltzen dira.

Egitarauaren bermatzea:

- **Zaintza Zainduz** prozesua sortzeko, antzerkiaren alor desberdinetatik jaso da materiala eta teknika nabarmenena psicodrama da: Taldean egiten den terapia da, pazienteak bere patologiak eszenaratzean datza. Iurgi Etxebarria psicodramatistak, antzerkiaren jakintzaz batu eta **Zaintza Zainduz** prozesua sortu du.
- Prozesua sortzeko, Zaintzako profesionalen aholkuak, informeak eta gogoak jaso ditu.
- Prozesuan barneratuta, aldi oro, partaideen arreta ziurtatzen da, guztiok bat eginik goazela sentitzeko eta prozesuan eginiko lana barneratzeko.
- Egitarauaren prozesua bizirik mantentzeko, ikastaldi bakoitzaren ondoren balorazioa egiten da, bai partaideekin baita antolatzaileekin ere.

Materiala:

- Apropoxen esku gelditzen dira ariketak burutzeko materiala.

- Antolatzaileen esku geratzen da, eszenak egiteko behar den materiala, mendekotasun egoeran dauden pertsonaiek behar dituzten tramankuluak.

Zuen inguruan, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.